

MARILYN MONROE

ARI EGIN ZIOTEN ILLETA!

Euskalerriko ostatuetan ondo artu zuten

Euskaldunak ildakoei zaletasun aundia euki die beti, ala ere ez bizi diranai bafio geiago. Gure illetak, jantzi-beltzak eta biozkadak, beste lekutako iskanbiliarik gabe, benetan eta luzaroko egiten dira. Askok motxagok nai lituzteke, bai. Ildakoei berdinxamar izango zaiela txuri edo beltz ibilli eta bere emaztea iltzea nai zuan

senarrari zergatik ainbeste atsegabe-ageri eskatu bear eta gure biotzeko poz-jario ittotzea ez dula merezi ta abar. Arrazoi asko, oiturak aldatzeko, alegia. Koroietan eta abar uxatzen dan dirua berriz, ondo ikusten da, oitura ala dalako.

Iru mallako illeta oiek zenbat buruko mifi egiten die eliza gutxi juaten diran kristauei! Danak Jainkoaren aurrean berdin omen gera ta illak ere ala bear omen dute izan. Ez nauzu iritzi ortakoa, adiskide. Illetak ez dituzu iru mallakoak, zenbat eta illeta ainbestekoak baizik.

Erri koxkorretako illeta onela izaten da: Gorputza lau gizaseme sendoen bizkarrean dijoa, apaiza aurretik otoizlari, atzetik aideak goibel ta ixillik, ofietakoen otsa dide gañean doñu. Meza Nagusia xamurr adierazi, geienak Jauna artu, illak eta biziak bat egiñak. Au irugarren mallako illeta degu.

Erri aundietako illeta bat: Gende asko ta asko, aurrena automobil itxusi zaar bat burrun-burrundaka ta ezin, gero lendabiziko illera erdi seriyo, gero surr-murr pitin bat eta azkenik iskanbilla, para ta luto gabeko gabardin asko eta jantzi gorrixa bat edo beste, ogei guardasol oriurdir azpian. Meza bitartean bostetik bi eliz-kanpoko petrillean eserita... Ixooo... Au lenengo mallako illeta baita. Zorionezko lenengo malla aundi ori. bi kandela eta iru kantore geiago izatea bada, neri, irugarren mallakoa egin bezatela.

* * *

Marili Monroe atsegin atsegin izan, nai-ko dirua euki, ospe zabala irabazi ta alare atsegabez il zan orain dala bi urte. Ari egin zioten illeta! Zenbat lore eta koroï, zenbat «izar» ta argazkari, zenbat malko... Aingerutxu bat bezelaxe «txuri txuri» jantzita, landatu zuten alako txoko berezi batean. Ez naiz ondo gogoratzen. zuk ba-aldakizu zenbat bider ezkondu zan?

Kopi txirrindulari trebea izan zan. Aprika'ko gaitz txar batek jan zuan, us-te gabe. Egunak igaro bear izan zituan bere gorputzak gendearen ikusmirako: Millaka ikusle, adiskide, ango ta emengo agintari edo ordezeko. Gurdi eder batean eramán zuten. Gizoneñ artean bazan alako otzikara, txirrindulari ospetsu bat iskitatu zalako ez bafia, bere emaztea etzan andrea uzteko garai gutxi izan zualako.

Zineko «izar» petral batek edo txirrindulari arroxko batek aña ez al dik merezi Apostoluen Ordezkari ta Donostiko Gotzai Jauna izana dan Jakobo Font Andreu'k.

Euskalerriko ostatuetan ez die ala us-te. Jainkoaren aurren ez gaituk danak berdin, motel. Ez orixe. Eta illetak ez dituk Jainkoaren aurreko gora bera bakarrik, gizarteak egin oi dien azken agurra baizik.

Bidanitar Ladislao